

INFORMAZIOA HELARAZTEKO BARNE SISTEMA

Funtzionamendu arauak eta Informazioak kudeatzeko prozedura

1.- HITZAURREA

Informazioa helarazteko barne sistema multzo integral bat da. Komunikazioak jasotzeko barne-kanalak eta informazioak kudeatzeko prozedurak osatzen dute, eta Informazioaren Barne Kudeaketarako Sistemaren arduradun baten agintaritzapean funtzionatzen du.

Helburua da bermatzea pertsonen —2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoak, 3. artikuluan aipatzen dituenek— jokabide irregularrak jakinarazi ahal izango dituztela, eta jokabide horien jarraipen eraginkorra egiten dela, independentzia, konfidentzialtasuna eta segurtasuna guztiz bermatuz, eta informazioa helarazteko barne sistemara jotzen dutenek errepresaliarik jasaten ez dutela ziurtatuz.

Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren helburua da pertsonak babestea, laneko testuinguru batean edo testuinguru profesional batean legearen 2. artikuluan aurreikusitako ekintzak edo ez-egiteak antzematen dituztenak eta horiek jakinarazi dituztenak, legean araututako mekanismoen bidez.

Beraz, arau-hausteak edo jardunbide ezegokiak prebenitzeko, detektatzeko eta ebazteko sistema bat da, zeinak bermatu egiten baitu informatzaileak izan daitezkeenek eskura duten informazioa erraz eta konfidentzialtasun osoz eman ahal izatea, Arriaga Antzertia Kultur Ihardueretako erakundea, S.A. sozietateak (aurrerantzean, Arriaga Antzokia) arazoa ikertu eta konpondu ahal izan dezan, posible den guztietan.

2.- APLIKAZIO EREMU MATERIALA

Honako irregulartasun hauek jakinarazi ahalko dira:

- a) Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-haustea izan daitezkeen edozein ekintza edo ez-egite, baldin eta:
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937

(EB) Zuzentarauaren eranskinean zerrendatuta badaude, eta Europar Batasunaren egintzen aplikazio-eremuan sartzen badira. Zuzentaru hori Batasunaren Zuzenbidearen arau-haustek jakinarazten dituzten pertsonak babesteari buruzkoa da, barne-ordenamendu juridikoak arau-hauste horiei buruz egiten duen kalifikazioa kontuan hartu gabe.

- Europar Batasunaren interes finantzarioei eragiten badiete, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 325. artikuluan ezarritakoaren arabera; edo
- Barne-merkatuan eragina badute, EBFTren 26. artikuluko 2. atalean aurreikusten den bezala, eta baita honako hauek ere: Europar Batasunaren lehiaren arloko arauen eta Estatuak emandako laguntzen arau-haustek, barne-merkatuari buruzko arau-haustek —sozietateen gaineko zergaren arauak hausten dituzten egintzekin lotutakoak edo sozietateen gaineko zergari aplikatu beharreko legeriaren xedea edo helburua indargabetzen duen abantaila fiskala lortzea helburu duten jardunbideekin lotutakoak—.

b) Arau-hauste penal edo administratibo larriak edo oso larriak izan daitezkeen ekintzak edo ez-egiteak.

3. - APLIKAZIO EREMU PERTSONALA

Arriaga Antzokiko Informazioa Helarazteko Barne Sistemak aukera emango die, otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren pertsona guztiei, 1. atalean aipatzen diren arau-hausteei buruzko informazioa jakinarazteko. Lege hori arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da.

Horrela, Informazioa Helarazteko Barne Sistema honako pertsona hauek babestera bideratuta egongo da: Arriaga Antzokiarekin lotura profesionalak edo lanekoak dituzten pertsonak, goi-kargudunak, zuzendaritzako langileak, harreman profesionala amaitu dutenak, boluntarioak, praktikaldian edo prestakuntza-aldian dauden langileak eta bekadunak —ordainsaria jasotzen duten edo ez kontuan hartu gabe— eta hautaketa-prozesuetan parte hartzen ari diren pertsonak. Halaber, babestu egingo ditu ere Arriaga Antzokiaren kontratisten, azpikontratisten eta hornitzaileen ikuskaritzapean edo zuzendaritzapean lan egiten duten autonomoak eta beste edozein pertsona. Horrez gain, 2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, 3. artikuluan aipatzen dituen pertsona guztiak babestuko ditu.

4.- INFORMAZIOA HELARAZTEKO BARNE SISTEMAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

Ezartzen den sistemak honako ezaugarri hauek ditu:

- Aukera ematen du pertsona guztiek arau-hausteen kategoria jakin batzuen berri emateko.
- Modu seguruan diseinatuta, ezarrita eta kudeatuta dago. Horrela, informatzailearen eta jakinarazpenean aipatutako edozein hirugarrenen nortasunaren konfidentzialtasuna bermatzen da, hura kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jarduketan konfidentzialtasunarekin eta datuen babesarekin batera, baimenik ez duten langileen informaziorako sarbidea eragotziz.
- Jakinarazpenak idatziz, ahoz edo bi modutara aurkezteko aukera ematen du.
- Erakundearen barruan ezar litezkeen barneko informazio kanalak integratzen dira.
- Bermatzen da aurkeztutako jakinarazpenak modu eraginkorrean tratatu ahal izango direla dagokion erakunde edo organismoan, irregulartasun posiblea ezagutzen lehena erakundea edo organismoa bera izan dadin.
- Bilboko Udalaren eta bere informazio kanal propioa ezartzera behartuta dauden mendeko erakundeen barneko informazio sistemen arteko independentzia eta bereizkuntza bermatzen da.
- Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradun bat izendatzen da.
- Informazioa helarazteko barne sistemaren eta informatzailearen babesaren arloko printzipio orokorrak behar bezala eman beharko dira jakitera udal erakundearen baitan.
- Jasotako informazioak kudeatzeko prozedura bat onesten da.
- Erakundearen edo organismoaren beraren eremuan informatzaileak babesteko bermeak ezartzen dira.
- Jasotako informazioei eta horiek eragindako barne mailako ikerketei buruzko erregistro liburu bat dago, betiere bermatuz 2/2023 Legean aurreikusitako konfidentzialtasun-betekizunak betetzen direla.

5.- INFORMATZEKO BARNE KANALA

2/2023 Legeak, otsailaren 20koak, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak ezarritakoa betez, informatzeko barne kanala sortzen da, 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako ekintzak edo ez-egiteak dituen informazioa jasotzeko bide egokitzat jotzen baita.

Konfidentzialtasuna funtsezko baldintza da kanal honek funtzionatu ahal izateko. Modu seguruan diseinatu eta kudeatuko da, informatzailearen, jakinarazpenean aipatutako

hirugarren pertsonen eta jakinarazpena kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jarduketan konfidentzialtasuna bermatzeko.

Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak kudeatuko du barne kanalaren funtzionamendua, eta berak bermatuko du, batetik, errepresaliarik ez dagoela eta, bestetik, informatzailearen konfidentzialtasuna gordetzen dela.

6.- INFORMAZIOA HELARAZTEKO BARNE SISTEMAREN ARDURADUNA

Arriaga Antzokiko Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradun gisa izendatzen da zuzendari nagusi postua duen pertsona, bere eginkizunak gara ditzan, 2/2023 Legearen 8. artikuluan aurreikusitako moduan. Horrez gain, ordezkari gisa, Administrazio Kontseiluko idazkari postua duen pertsona izendatzen da.

Zuzendari nagusiaren postua duen pertsonari, zuzenean edo zeharka, erreferentzia egiten bazaio jasotako informazioan, ezingo du inolako izapiderik egin prozedura osoan, eta ordezkari bakarrik egingo ditu. Informazio hori Organo Gorenari helarazi ahal izango zaio, onarpen-izapidea egin dezan eta, hala badagokio, gainerako izapideak eta itxiera egin ditzan.

Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunari dagokio jarduketa-eremu bakoitzean sistema osoa kudeatzeko erantzukizuna, eta baita arau-hausteei buruzko informazioak arduraz izapidetzekoa ere. Bere eginkizunak erakundeko edo organismoko gainerako organoekiko modu independentean eta autonomoan garatu beharko ditu, ezingo du inolako jarraibiderik jaso bere jardunean, eta eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material guztiak eduki beharko ditu.

Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak erabateko konfidentzialtasun- eta segurtasun-bermeak eskaini behar ditu erabiltzen duen informazioari dagokionez.

Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunaren eginkizunak honako hauek dira:

- a) Dagozkion egiaztatze-lanak egitea, bere kabuz edo esleitutako langileen bidez.
- b) Jakinarazpenak kudeatzea.
- c) Gertakarien egiaztapenari amaiera ematen dion gomendia formulatzea.
- d) Berriaz sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa bere gain hartzea.

- e) Pertsona eta enplegatu publikoek zuzenbidearen aurkako jokabideak isilpean jakinarazteko aukera dutela zaintzea, jakinarazpena fede onez egiten duenari inolako kalterik eragiten ez zaiola zainduz.
- f) Gertaerak egiaztatzeko prozesuan, behar bezalako babesak ematea kargudunei eta gainerako enplegatu publikoei.
- g) Urteko memoria egitea eta Administrazio Kontseiluari bidaltzea.
- h) Prestakuntza eta prebentzio neurriak bultzatzea, balio etikoen, jokabide-arauen eta gobernu onaren aurkako jarduketei aurre egiteko.
- i) Zuzenbidearen, arauen eta aipatutako balioen aurkako jokabideei buruz egon daitezkeen interpretazio-zalantzak argitzea.

7.- INFORMAZIOAK JASOTZEA

1. Informazioa modu anonimoan eman daiteke. Bestela, informatzailearen nortasuna isilpean mantenduko da, eta ezingo zaie hirugarrenei jakinarazi.
2. Informazioa idatziz, posta arruntez edo informatzeko barne kanalera zuzendutako edozein bitarteko elektronikoko baliatuz eman ahal izango da, edo ahoz, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistema baten bidez. Informatzaileak hala eskatuta, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, zazpi eguneko epean gehienez ere. Ahoz jakinarazten den kasuetan, informatzaileari ohartaraziko zaio jakinarazpena grabatu egingo dela, eta bere datuen tratamenduaren berri emango zaio, zeina Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera egingo baita.

Informazioa aurkezteko orduan, informatzaileak helbide bat, posta elektronikoko helbide bat edo leku seguru bat adierazi ahal izango du, jakinarazpenak jasotzeko. Halaber, espresuki uko egin ahal izango dio jakinarazpenaren ondorioz Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak egindako jarduketei buruzko edozein jakinarazpen jasotzeari.

Ahozko jakinarazpenen kasuan, aurrez aurreko bilera bidez, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistema bidez egindakoetan, jakinarazpen horiek jarraian aipatutako moduren baten bidez dokumentatu beharko ditu Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunak:

- elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarri batean grabatuz, edo

- informazioaren tratamenduz arduratzen diren langileek egindako elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatz baten bidez.

Datuak babesteko araudiaren arabera dagozkion eskubideei kalterik egin gabe, informatzaileari aukera emango zaio mezuaren transkripzioa egiaztatzeko, zuzentzeko eta, sinadura bidez, onartzeko.

3. Informazioa aurkeztu ondoren, Informazioa Kudeatzeko Sistemari erregistratu da, eta identifikazio-kode bat esleituko zaio. Informazioa Kudeatzeko Sistema datu-base seguru batean egongo da, sarbidea mugatuarekin, soilik Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduraduna sartzeko moduan. Bertan, jasotako jakinarazpen guztiak erregistratu dira, eta honako datu hauek beteko dira:

- Harrera data.
- Identifikazio kodea.
- Egindako jarduketak.
- Hartutako neurriak.
- Itxiera data.

4. Informazioa jaso eta gehienez ere bost egun balioduneko epean, jaso izanaren adierazpena egingo da, nola eta informatzaileak berriaz uko egiten ez badio ikerketari buruzko jakinarazpenak jasotzeko, edo Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunak arrazoiz baderitzo jakinarazpena jaso izana adierazteak informatzailearen nortasunaren babesa arriskuan jarriko lukeela.

8.- ONARTZEKO IZAPIDEA

1. Informazioa erregistratu ondoren, Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunak egiaztatu beharko du ea 2/2023 Legearen aplikazio-eremuaren barruan dauden gertaerak edo jokabideak jasotzen ote dituen.
2. Aurretiazko analisi hori egin ondoren, Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak jarraian aipatzen den erabakietako bat hartu behar du, informazioa erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasi eta, gehienez ere, hamar egun balioduneko epean:
 - a) Jakinarazpena ez onartzea, kasu hauetakoren batean:

- Azaldutako gertaerek inolako sinesgarritasunik ez dutenean.
- Azaldutako gertaerak ez direnean 2/2023 Legearen aplikazio-eremuan jasotako ordenamendu juridikoaren arau-hausteak.
- Agerikoa denean jakinarazpenak ez duela oinarririk, edo Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunaren iritziz, delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, Fiskaltzari delitutzat jotzen diren gertaeren zerrenda inguruabarduna igorriko zaio.
- Jakinarazpenak —dagozkion prozedurak amaituta dituen aurreko jakinarazpen batekin alderatuta— arau-hausteei buruzko informazio berririk eta esanguratsurik ez duenean, baldin eta beste jarraipen bat justifikatzen duten egitatezko edo zuzenbidezko inguruabar berriak ez badaude. Kasu horietan, Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak modu arrazoituan jakinaraziko du ebazpena.

Ez-onartzea hurrengo bost egun baliiodunen barruan jakinaraziko zaio informatzaileari, salbu eta jakinarazpena anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunaren jakinarazpenak jasotzeari.

b) Jakinarazpenaren izapidetzea onartzea.

Izapidetzeko onartu izana hurrengo bost egun baliiodunen barruan jakinaraziko zaio informatzaileari, salbu eta jakinarazpena anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunaren jakinarazpenak jasotzeari.

c) Informazioa berehala bidaltzea Fiskaltzari, gertaerak delitu izan daitezkeenean, edo Europako Fiskaltzari, gertaerek Europar Batasunaren interes finantzarioei eragiten dietenean.

d) Jakinarazpena izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintari, erakunde edo organismoari bidaltzea.

9.- IZAPIDEAK EGITEA

1. Izapideak egitearen baitan sartzan dira azaldutako gertaeren egiantzekotasuna egiaztatzeko jarduketa guztiak.

2. Bermatuko da informazioak eragindako pertsonak haren berri duela, eta kontatutako gertaeren berri emango zaio modu laburrean. Horrez gain, jakinaraziko zaio alegazioak idatziz aurkezteko eskubidea duela, eta bere datu pertsonalen tratamenduaren berri emango zaio. Hala ere, informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta aldez aurretik aurkeztuz gero frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraz daitekeela uste bada.

Eragindako subjektuei ez zaie inola ere jakinaraziko informatzailearen nortasuna, eta ez zaie jakinarazpenerako sarbiderik emango. Izapideetan zehar, ikertutako pertsonari labor jakinarazi ahal izango zaio gertaerak zein diren. Informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta aldez aurretik aurkeztuz gero frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraz daitekeela uste bada.

3. Alegazioak idatziz egiteko eskubideari kalterik egin gabe, izapideetan, posible den guztietan, elkarriketa bat egingo zaio kaltetutako pertsonari, zeinetan —betiere errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuz— gonbidapena egingo baitzaio gertaeren bere bertsioa azal dezan, eta beharrezkotzat eta egokitzat jotzen dituen frogatzeko bideak aurkez ditzan.

Kaltetutako pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, pertsona horrek espedienterako sarbidea izango du —informatzailea identifika dezakeen informaziorik ikusi gabe— eta edozein unetan entzun ahal izango zaio; horrez gain, abokatuaren laguntzarekin agertzeko aukera duela jakinaraziko zaio.

4. Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunarekin elkarlana egiten duten eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten langileek isilpean gorde behar dute jarduera horren ondorioz ezagutzen duten informazioa.
5. Arriaga Antzokiko langile guztiak Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunarekin lankidetzan aritu beharko dira, eta izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo informazioa emateko errekerimenduak bete beharko dituzte, baita eskatzen zaizkien datu pertsonalei dagokienez ere.

Halaber, Bilboko Udalaren Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren esparruan, Arriaga Antzokiko langile guztiak Bilboko Udalaren Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunarekin lankidetzan aritu beharko dira, eta izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo informazioa emateko

errekerimenduak bete beharko dituzte, baita eskatzen zaizkien datu pertsonalei dagokienez ere.

10.- JARDUKETEN AMAIERA

1. Jarduketa guztiak amaitu ondoren, Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinetan gutxienez honako hauek jasoko baititu:
 - a) Jakinarazitako gertakarien azalpen bat, jakinarazpenaren identifikazio-kodearekin eta erregistro-datarekin batera.
 - b) Jakinarazpenaren sailkapena, izapidetzeko orduan lehentasuna izan duen ala ez jakiteko.
 - c) Gertakarien egiantzekotasuna egiaztatzeko egindako jarduketak.
 - d) Izapideetan ateratako ondorioak, eginbideen balorazioa eta eginbideen oinarri diren zantzuen balorazioa.

2. Txostena egin ondoren, Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak honako erabaki hauetakoren bat hartuko du:
 - a) Espedientea artxibatzea, eta informatzaileari eta, hala badagokio, kaltetutako pertsonari horren berri ematea. Kasu horietan, informatzaileak eskubidea du lege honetan aurreikusitako babesa jasotzeko, salbu eta, izapideak egiteko fasean egindako jarduketak direla-eta, ondorioztatzen bada informazioa —egindako jarduketak ikusita— ez zela onartu behar, aurrez aurreikusitako arrazoiren bat aldi berean gertatu zelako.
 - b) Fiskaltzari igortzea, hasiera batean gertaeretan delitu-izaera izan zezaketenaren zantzurik ikusi ez arren, izapidetu ahala hala dela ondorioztatzen bada. Delituak Europar Batasunaren interes finantzaroei eragiten badie, Europako Fiskaltzari igorriko zaio.
 - c) Egindako guztia izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintaritzari helaraztea.
 - d) Zehapen-prozedura hasteko erabakia hartzea.

3. Jarduketak amaitzeko eta informatzaileari erantzuteko epea, hala badagokio, ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, informazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita. Erabakia edozein dela ere, informatzaileari haren berri eman behar zaio, salbu eta horri uko egin badio edo jakinarazpena anonimoa bada.

4. Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak jarduketa hauetan hartzen dituen erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, ezta administrazioarekiko auzibidean ere. Nolanahi ere, administrazioarekiko edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da, adierazitako gertaeren ondorioz, has daitekeen zehapen-prozedurari amaiera ematen dion behin-behineko ebazpenaren aurka.

11.- INFORMATZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Informatzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Jakinarazpena modu anonimoan egin nahi duten edo ez erabakitzea; bigarren kasu horretan, informatzailearen nortasuna isilpean mantentzen dela bermatu behar da, hirugarrenei informatzailearen nortasunaren berri ez emateko.
- b) Jakinarazpena ahoz edo idatziz egitea.
- c) Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunak ikerketaren harira egiten dituen jakinarazpenak jasotzeko helbide bat, helbide elektronikoko bat edo leku seguru bat adieraztea.
- d) Hala badagokio, uko egitea Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunaren jakinarazpenak jasotzeari.
- e) Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunaren aurrean agertzea, bere ekimenez edo hark eskatuta, eta, hala badagokio eta egokitzat jotzen badu, abokatuak lagunduta.
- f) Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunari eskatzea haren aurrean bideokonferentzia bidez edo bestelako bitarteko telematikoen bidez egiten den agerpena segurua izan dadin, batetik, informatzailearen nortasuna babesteko eta, bestetik, jakinarazpenaren segurtasuna eta fidagarritasuna bermatzeko.
- g) Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideak baliatzea.
- h) Egindako salaketaren izapideen egoera eta ikerketaren emaitzak ezagutzea.

Betebeharrak honako hauek izango dira:

- a) Informatzeko barne kanala erabiltzen duten pertsonak jakinarazten duten informazioaren ziurtasunari buruzko arazoizko edo nahikoa zantzu izan behar dute, eta ezin izango dira jakinarazpen generikoak, fede txarrekoak edo eskubide-abusuzkoak egin.
- b) Informatzaileak behartuta daude jakinarazten dituzten gertaerak edo jokabideak ahalik eta zehaztasun handienaz deskribatzera; halaber, frogak lortze aldera,

deskribatutako egoerari edo zantzu objektiboari buruz eskura dagoen dokumentazio guztia eman behar dute.

- c) Informatzailea arduratuko da bere jakinarazpena identifikatzeko kode alfanumerikoa gordetzeaz —dagozkion segurtasun-neurri egokiak hartu— eta erabiltzeaz. Erabileraren helburu bakarra Informazioa Helarazteko Barne Sistemaren Arduradunarekin harremana mantentzea eta informazio garrantzitsua gehitzea da.

12.- JAKINARAZITAKO JOKABIDEA EGOTZI ZAION PERTSONAREN ESKUBIDEAK

Ordenamendu juridikoaren aurkako jokabidea egotzen zaien pertsonak jarraian zerrendatzen diren eskubideak dituzte.

Salatutako pertsonak honako eskubide hauek dituzte:

- a) Isilpekotasun handiena izatera gertaerak egiaztatzeko zereginetan eta, oro har, komunikatzeko barne kanalaren kudeaketa osoan.
- b) Aurkeztutako jakinarazpenaren berri berehala jasotzeko eskubidea, salbu eta gertaeren egiaztapenaren mesedetan sekretua izatea adosten bada; hori modu arrazoituan eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera egingo da.
- c) Zuzenean edo zeharka erreferentzia izendunak dituzten gomendioak eta ondorioak ez emateko eskubidea, jakinarazitako gertaerak ezagutzeko eta beren iritzia jasota geratzeko benetako aukerarik izan ez duten bitartean.
- d) Hirugarrenei informaziorik ez emateko eskubidea, eta datuak ez lagatzekoa, gertaeren egiaztzekotasuna egiaztatuta geratu arte, edo jakinarazitako jokabidea egin izana gauza segurua dela adierazten duten zantzu nahikoak agertu arte. Datuak agintaritzaren judizialari edo diziplina-agintaritzaren eskudunari jakinarazteko ez da beharrezkoa alde aurretik arduradunari jakinaraztea.

13.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Komunikatzeko barne kanal hori aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua; Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa, eta arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari

buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen VI. tituluko aurreikuspenak.

14.- INFORMATZEKO BARNE KANALARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arriaga Antzokiaren webgunean, hasierako orrian eta erraz identifika daitekeen atal bereizi batean, informazio egokia argitaratuko da, modu argi eta eskuragarrian, informatzeko ezarritako barne kanal ororen erabilerari buruz eta kudeaketa prozeduraren funtsezko printzipioei buruz.

15.- BABESAREN BALDINTZAK

1. Arau-haustek jakinarazten edo ezagutzera ematen dituzten pertsonak babesaz izateko eskubidea izango dute, baldin eta honako inguruabar hauek gertatzen badira:
 - a) arrazoizko zergatikoak badaude pentsatzeko, batetik, aipatutako informazioa egiazkoa dela, jakinarazteko edo ezagutzera emateko unean, baita froga eztabaidaezinik aurkezten ez denean ere, eta, bestetik, informazio hori araudi honen aplikazio-eremuan sartzen dela;
 - b) jakinarazteko edo ezagutzera emateko aurreikusitako errekerimentuak bete badira.
2. Berariaz baztertuko dira aurreikusitako babesetik honako hauek jakinarazten edo ezagutzera ematen dituzten pertsonak:
 - a) Informatzeko barne kanalen batean, edo aurreikusitako arrazoiren batengatik, onartu ez diren jakinarazpenetan zeuden informazioak.
 - b) Pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei lotutako informazioak, edo jakinaraztean edo ezagutzera ematean aipatzen diren pertsonen eta informatzaileari bakarrik eragiten dietenak.
 - c) Dagoeneko jendearentzat erabat eskuragarri dauden informazioak edo zurrumurruek besterik ez direnak.
 - d) Araudi honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioak.
3. Ekintza edo ez-egiteei buruzko informazioa modu anonimoan publikoki jakinarazi edo ezagutzera eman duten pertsonak, gerora identifikatu badira eta Eranskin honetan

aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, deskribatutako babesak izateko eskubidea izango dute.

16.- ERREPRESALIAK DEBEKATZEA

1. Berriaz debekatzen dira errepresalia bat eratzeko duten egintzak —errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-saiakuntzak barne—, araudi honetan aurreikusitakoaren arabera jakinarazpena aurkezten duten pertsonen aurka egiten direnak.
2. Errepresaliatzen hartzen da legeak debekatzen duen edozein ekintza edo ez-egite, edo —zuzenean edo zeharka— tratatu kaltegarria dakartenak, baldin eta horiek jasaten dituzten pertsonak —laneko testuinguruan edo testuinguru profesionalean— desabantailan jartzen baditu beste pertsona batekin alderatuta, informatzaile izate hutsagatik edo jendaurrean jakinarazpen bat egin izanagatik.